

kolaborazioa

txokotik

Frantzia, 1898. Dreyfus kapitainak, Estatuarekiko saldukeriaz gaitzetsia, gradugabetua, Guayanen eman ditu 4 urte t'erd. Dreyfus judua zen, eta anti-semitismo oso azkarra Frantzia hartan.

Honetan, egia jakinda: Esterhazy kapitainak egin zuen saldukeria. Ez Dreyfusek.

Ainhara Gorostiaga eta beste hiruen kasuan gaudela dirudi.

Eta orduan altxa zen Emile Zola idazlea; eta Tribunal salatu zuen. "l'accuse" idatzi zuen. Eta bera ere kondenatu zuen frantses Justiziak, Londres-era ihes egitera behartu.

Eta nik ere («*toutes distances gardées*») salatu egiten dut gaur.

Baina ez inguruko inor edo ezer. Nahiz balegokeen zer esanik.

Nik neure burua salatu dut.

Carod-Rovira miresen baitut, eta Euskal Herria-arentzat euskal ERC bat nahi baitut.

Eta hau, hemendik eta handik entzuten dudanez, saldukeria eta traizio hutsa baita.

Zeri, ordea?

Hain zuzen ere, Catalunya-ko ezker abertzaleari Carodek eman dion ekinbidea eskatzen dut euskal ezker abertzalearentzat. Zertan da hau hobien okazagarri?

«Ez dut inoiz ezagutu -dio beti berak- gaztelaniaz mintzateaz azalpenak eman beharretan ibiltzen den espainiarrik...»

Txillardegia

Salatu egiten dut

«Datorren maiatzaren lean, Eslovenia, Eslovakia, Estonia, Letonia, eta abar, estatu gisa sartuko dira Europa berria. Catalunya ez Zergatik? Madrilek nahi ez duelako».

Galdere egokiak. Nik neuk ere, neure burua salatu dut. Ez baitut ulertzen, eta ez onartzen, zergatik lotsatu behar dugun Euskal Herri batuz, askatuaz, euskaldunaz. Zergatik ez? Madrilek nahi ez duelako?

Guk Auto-Determinazioa eskatzen dugu.

Eta, zozotu ez bagaituzte, elkar harturik jokatuz behar dugu. Eta, ERCak egin duen bezala, A.D.aren alde dagoen ezkerre elkarturik.

Carod-Rovira Pujol-Duran-en morrontza gaitzetsu du. Eta hemen PNVarena gaitzetsu duena iritsi da.

Nik bide politiko hutsak erabili nahi ditut, bide zibilak, eta neure burua salatu dut berriro hobien likits honetaz. ERCdut eredu. Eta su-etena eskatzen dut hamaikagarren aldiz, Carod-Rovirak bezala.

Besteak beste, «antiterrorismo»-aren atzean izkutatzen den espainiar naziokeria desmorrortzeko.

Baina badago beste-rik. Nik ezker sozialistan ikusten dut etorkizuna.

Baina neure egiten ditut Carod-Roviraren hitz ausart hauek: «...han generat un cert relaxament, una mena d'afluixament de lligams entre les esqueres i la olasse treballadora i els sectors populars, en general. També hi ha influït, és clar, la crisi de credibilitat que, a partir de la gran estafa de l'Est comunista i la gran corrupció del socialisme occidental, ha desfermat el

desànim moral i la resignació col·lectiva».

Ados egoteaz salatuzen dut neure burua.

Hortaz, «pluralismo»-famatu horren izenean, utz nazazue, utz gaitzazue, Euskal Herria-geure ERCa eraikitzen. Utz itzazue alde batera gurrak eta irain mingarriak.

GAZ irabaziko badugu, goazen elkarturik A.D. nahi dugun guztiok. Elkarturik diot; ez inposaketa bidezko sasi-fatxa-

da batuan.

Indar handia dugu. EAKo ezker aldeko zati-tik hasi, gehi Aralar, Nafarroa Bai, Abertzaleen Batasuna, Euskal Herri-tarrok, Zutik, Ezker Batua, ELA, LAB, Stee, Kultur elkarteak. Nork esan du ezer egiterik ez dagoela?

Utz ditzagun baketan AjuriaEnea bis antolatu-zen ari direnak. Bejondaiela!

Honetaz guztiaz, salatu egiten dut neure burua. •



Floren Aoi

Krudelkeriaren iduriak

Esatera zaharrak dionez, izena duen guzia omen da. Gaur egun ordea, telebistan agertzen ez dena ez da gertatzen, ez da, finean. Iduriaren mundu honetan edozeinek ikus dezake Irakeko jende xehean krudelkeria, hainbat gorpu urratzen ari direlarik. Iduri horiek ikusten dira, beraz, gauza horiek gertatzen dira. Irakiarrak basapiztiak dira, zibilizatu gabekoak. Iraken atxilotuek jasotzen duten tratua ez da ikusten, ordea. Jasaten duten krudelkeria ez da telebistan islatzen: ez da. Bergauza gertatzen da munduko beste eremuetan. Gorrotoaren sustraiak ez dira telebistan adierazten. Milaka lagunen erremina, zapalduarik senditzea, gariaren giro itogarria, gauza horien gainetik iduri gogor eta zirraragarri horiek jartzen dizkigute begien aitzin.

Sarritan galdetu diot ene buruari zer gertatuko litzatekeen Espainiako Estatuako biztanleek beren etxeko telebista aparailuetan ikusiko balute polizia eta guardia zibilek euskal atxilotuekin egiten dutena. ETAREN ekintzen iduriak ikusi dituzte, iduri gogorak izan arren, hamaika aldiz errepikatu dituztelako. Lehengo egunean telebistako tertulia batean gizon batek errefusatu zuen Irakeko krudelkeriaren iduriak zabaldu izana. Ez zuen oroitzen, ausaz, beste iduriekin egin dutena.

Hemen, munduko beste bazterretan bezala, badugu gure gatazka, zeinean indarkeria erabiltzen baita. Gatazka biktima batzen maiko eta egonezinararen adierazpenak edozein unetan agertzen dira telebistan. Besteena ez da inoiz ere agertzen, alta.

Izan ere, estatu espainolak ez du bere indarkeria aitortzen, ez du bere krudelkeria onartzen. Bere jardura ezkutatu-zen du. Espainiako estatuaren indarkeria ez da, telebistan agertzen ez delako. Presoen sakaanaketa, kartzelako egoerak, mobilizazioen errepresioa, mehatxuak, ideien pertsekuzioa, gauza hauek guztiak ez dira, telebistan aipatzen ez dituelako.

Irakeko iduri gogor horiek zein muntutan bizi garen jakinarazten digute, jakin nahi ez dugun arren. Bizi garen munduan pertsona eta talde batzuek beste batzuk menderatu eta zapaltzen dituzte. Krudelkeria tresna bat izaten da, zapaltzuta lortu eta bermatzeko. Zapaltzuzaren biktimek, batzuetan, krudelkeriaz erantzuten dute. Maiz iduri hauek soilik ikusten dira, baina besteak, izan, badira, jakina! •



gutunak

para poder llegar a acuerdos. Si no fuera así y se llegase a acuerdos con ellos muchos votantes nos sentiríamos defraudados. Además el PSE debería aprovechar el buen clima creado por la marcha de Aznar para hablar de cosas más serias.

Lorea Maizra • Bilbo

EL SEÑOR ALONSO Y EL EQUIPO A

Las ayudas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz a las familias numerosas son de un surrealismo tal que parecen un chiste de Chiquito de la Calzada si no fuera por el trasfondo social que conllevan.

Pongamos el caso de una familia numerosa de cinco miembros en la que los dos trabajan y tienen la suerte de estar hipotecados en un piso; las ayudas directas del Ayuntamiento son las siguientes:

1. Reducción de un 10% en el impuesto de circulación siempre que se tenga un vehículo de más de cinco plazas. A efectos prácticos esta ayuda es de entre 6 y 12 euros anuales... para tirar cohetes.

2. Reducción de la tasa de agua siempre que el consumo supere los 116 metros cúbicos cada seis meses. Vamos, que después de regar el barrio y duchar a tus hijos cuatro veces al día el Ayuntamiento te descuenta lo que cuesta un libro de texto... ah! se me olvidaba, siempre que los ingresos familiares no superen los 36.000 euros anuales.

Y aquí va la mejor: 3. Reducción en la tasa por recogida de basuras siempre que su vivienda supere los 116 metros cuadrados. Debo vivir en otra ciudad; ¡la familia numerosa que se pueda permitir un piso de esas características para qué

pujetas necesita ayuda?

La verdad es que en vez de incentivar el tener hijos que pagarán las pensiones de todos en el futuro, claramente esto se penaliza, por ejemplo con impuestos indirectos (los más injustos) esta familia paga el IVA de todo multiplicado por cinco miembros... No me quejo, cuando mi mujer y yo decidimos convertir nuestro hogar en una sucursal de pañales, hacer trabajar a la lavadora más que al masajista de Ronaldo y conocer a los celadores de urgencias de pediatría de Txagorritxu como si fueran de casa... sabíamos dónde nos metíamos.

Lo que no es de recibo es escuchar a los políticos decir que apoyan a las familias, tener que oír lo mucho que cuidan de nosotros y lo preocupados que están por la tasa de natalidad en Euskadi... claro que ellos seguro que

tienen un piso de 140 metros cuadrados, riegan el jardín cuatro horas al día y pasean a sus hijos en la furgoneta del equipo A.

David Onaindia • Gasteiz

BIHAR DENAK LESAKARA!

Euskal Herria euskaraz? Badirudi erraza dela baina nori ez zaio gertatu medikura joan eta hau eralduna izatea? Edo jate-txe bateko karta erdara hutsen topatzea? Udal langilearekin euskaraz ezin ulertzea? Banketxeke papereak erdara hutsen jasotzea? Administrazioarekiko harremanak euskaraz ezinezko izatea? Dendari eraldunak topatzea? Epaile eraldunak egokitzea? Euskara edota euskaraz ikasteko trabak baino ez jartzea? Sanz ingeleraren alde aritzea, euskara zanpatzen duen birtantean? «Euskaldunon egunkaria»-erostera joan

eta itxia eta debekatua zegoela jakitea?

Bistan da, hortaz, Euskal Herria hizkuntza eskubideak noiznahi eta no-nahi urratzen direla. Euskalgintzako eragile nahiz euskaltzale guztiok hizkuntza eskubideak lortzea gure esku ere bada-goela konturatu behar dugu. Eta horiek borrokatzen hasi, gaurdanik.

Bihar Lesakan hizkuntza eskubideak atera hori jendarteratzea eta horiek borrokatzeko eskuartean ditugun tresnak ezagutaraztea da gure asmoa. Guk gitaraua prest dugu, zuen denen parte hartzea bertzerik ez dugu falta. Elkartzea eta indarrak bil-tzea berebizikoa dugu antzinetik dugun erronkari umorez eusteko.

Gure esku ere badagoelako, hizkuntza eskubideak borrokatu! Bai ofizial-tasunari!

Zaine Rodriguez • Lesakako EHeren zinean